

EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO SUPERMERKATU BAT IREKI DU GAUR GASTEIZEN

- Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei fabrikatzaileen markekin, marka propioarekin eta freskoetan lidergoa dutenekin
- Saltokian sei langile ari dira
- EROSKI k 32 frankizia inauguratu ditu urteko lehen seihilekoan
- Kooperatibak orain dela gutxi berri du CEAJErekin zuen lankidetzaren hitzarmena, eta beste hitzarmen bat egin du ATArekin, enpresaburu gazteen ekintzailatza lagundu eta sustatzeko

Gasteiz, 2019ko abenduaren 17a.- [EROSKI](#) k frankizia erako beste supermerkatu bat ireki du Gasteizen, Juan Carlos I.aren kaleko 19. zenbakian. EROSKI/City izeneko da saltokia, eta, tratu pertsonalizatuagoa eman ez ezik, apustu egingo du tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde; horrez gainera, elikadura osasungarria sustatuko du, eta eguneroko erosketetan aurrezteko modu berriak eskainiko ditu. Saltokian sei langile ari dira

Supermerkatuak 3.500 produktu eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleak, eta 192 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoian sasoiko tokiko fruta eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak ogiak eta opilak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarri behinena. Markaren bezero-bazkideen harremanerako programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, 2x1 produktuak, berariazko eskaintzak hamabostean behin eta Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 118.818 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero bazkideak, eta EROSKI Cluben abantailak eskuratzen ari dira dagoeneko Araban.

32 frankizia inauguratu ditu urteko lehen seihilekoan

2019ko lehen seihilekoan, EROSKI k 32 frankizia inauguratu ditu; horretarako, bost bat milioi euro inbertitu ditu, eta hala, 192 lanpostu sortu.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



%8 handitu ziren EROSKIren supermerkatu frankiziatuen sarearen salmentak. Kooperatiba formatu komertzialak berritzen ari da, merkatuan gaur egun dauden ereduak alternatiba bat eskaintzeko.

Kooperatibak lankidetzak hitzarmena berritu du Enpresaburu Gazteen Elkartearen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE), enpresari gazteen ekintzailak lagundu eta sustatzeko, eta orain berriki, beste hitzarmen bat sinatu du ATArekin, hau da, Enpresariaren eta Langile Autonomoen Elkartearen Espainiako Federazioarekin. Hitzarmen horiekin, ekintzaile indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKI autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)